Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko urriaren 16a, astelehena — 199 — Lunes, a 16 de octubre de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, 2023ko maiatzaren 12an egindako ez ohizko Osoko Bilkuran, hasierako onarpena eman zion Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen erabilera eta funtzionamendua arautzen duen udal erregelamenduari.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49.b artikulua betez, jendaurrean jarri zen hogeita hamar egun baliodunez, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta eta epearen barruan aurkeztutako erreklamazioa ebatzi ondoren, Udalbatzak, 2023ko irailaren 28an egindako Osoko Bilkuran, behin betiko onartu du erregelamendua.

Tolosa, 2023ko urriaren 3a.—Angel Martinez de Rituerto Arregui, alkatea. (7450)

*Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen erabilera eta funtzionamendua arautzeko udal erregelamendua.*

Aurkibidea.

Aurrekariak/zioen azalpena.

I. kapitulua. Definizioa, helburuak eta erakunde motak.

1. artikulua. Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

2. artikulua. Helburu nagusia.

3. artikulua. Erakunde motak.

II. kapitulua. Printzipioak eta jarduteko ildoak.

4. artikulua. Printzipioak.

5. artikulua. Jarduteko ildoak.

6. artikulua. Ordutegia.

7. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilera.

III. kapitulua. Espazioen deskribapena eta erabilera.

8. artikulua. Lokal nagusiaren deskribapena eta erabilera (Emakumeon plaza 1).

9. artikulua. Atzealdeko lokalen deskribapena eta erabilera (Inpernu kalea 5 eta 7).

10. artikulua. Unean uneko jarduerak. Jarduera jarraituak. Bilerak.

11. artikulua. Biltegi-espazioaren erabilera.

IV. kapitulua. Jarduerak eta zerbitzuak.

12. artikulua. Garatuko diren jarduerak eta zerbitzuak.

V. kapitulua. Antolaketa eta kudeaketa.

13. artikulua. Espazioen kudeaketa.

VI. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak.

14. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

15. artikulua. Erakundeen betebeharrak.

16. artikulua. Baimena edo lagapenaren epea.

## AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento, en sesión extraordinaria celebrada el 12 de mayo de 2023, aprobó inicialmente el Reglamento municipal regulador del uso y funcionamiento de Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

En cumplimiento del artículo 49.b de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se sometió a información pública durante treinta días hábiles desde el día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, para la presentación de reclamaciones.

Habiendo finalizado el plazo de información pública y una vez resuelta la reclamación presentada en plazo, el Pleno del Ayuntamiento, en sesión celebrada el 28 de septiembre de 2023, ha aprobado definitivamente el reglamento.

Tolosa, a 3 de octubre de 2023.—El alcalde, Angel Martinez de Rituerto Arregui. (7450)

*Reglamento municipal regulador de uso y funcionamiento de Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.*

Índice.

Antecedentes/exposición de motivos.

Capítulo I. Definición, objetivos y tipología de entidades.

Artículo 1. Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

Artículo 2. Objetivo general.

Artículo 3. Tipología de entidades.

Capítulo II. Principios y líneas de actuación.

Artículo 4. Principios.

Artículo 5. Líneas de actuación.

Artículo 6. Horario.

Artículo 7. Uso de lenguas oficiales.

Capítulo III. Descripción y uso de los espacios.

Artículo 8. Descripción y uso del Local Principal (Emakumeon plaza, 1).

Artículo 9. Descripción y uso de los Locales traseros (Inpernu kalea, 5 y 7).

Artículo 10. Actividades puntuales. Actividades continuas. Reuniones.

Artículo 11. Uso del espacio de almacenamiento.

Capítulo IV. Actividades y servicios.

Artículo 12. Actividades y servicios a desarrollar.

Capítulo V. Organización y gestión.

Artículo 13. La gestión de los espacios.

Capítulo VI. De los derechos y obligaciones.

Artículo 14. De los derechos y obligaciones de las usuarias.

Artículo 15. Obligaciones de las instituciones.

Artículo 16. Plazo de autorización o cesión.

EK\CV GAO-I-2023-07450

VII. kapitulua. Xedapen iragankorrak.

17. artikulua. Azken xedapena.

AURREKARIAK

Emakumeen Etxea Mugimendu Feministak aspalditik eskatzen duen baliabidea da; izan ere, Tolosako eta Tolosaldeko emakumeen partaidetza soziopolitikoa sustatuko duen emakumeentzako gune propio baten aldarrikapen hori Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Planari 2011n egindako ebaluazio-prozesuan jaso zen. Hurrengo urteetarako, Tolosan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekintzak garatzeko lehentasunezkotzat jotzen ziren eremuen artean, Emakumeentzako Etxe bat sortzeko beharra aipatu zen.

Jabetze Eskola indartzeko, eta emakume-taldeek beraiek eskatuta, guztientzat foro komun bat antolatzeko beharra ikusi zen, esperientziak partekatzeko eta jarduerak elkarrekin eta koordinatuta antolatzeko. Era berean, Tolosarako Emakumeen Etxea sortzea eskatu zuten, udalerriko emakumeak ahalduntzeko jarduera guztiak garatzeko gune propioa izateko.

Ildo horri jarraituz, 2015ean, Tolosako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean (2015-2020), berriz ere jaso zen eskualdean emakumeentzako espazio fisiko bat sortzeko beharra, hain zuzen, 2. ardatzeko (Jabetza eta Partaidetza), 2.1.1.4. eta 2.1.1.5. neurri espezifikoen artean:

«2.1.1.4. Emakumeentzako espazio fisiko bat sortzea, Tolosan kokatua eta eskualdeari lotutako zein lotu gabeko emakumeei irekia.

2.1.1.5. Emakumeen geroko espazioa kudeatzeko eredu bat definitzea, partaidetzazko prozesu baten bidez, espazio horretako partaide izango diren kolektiboen eta banakako emakumeen inplikazio-maila ahalik eta handiena lortzeko.»

2016. urtean landutako Tolosatzen delakoan prestatutako Tolosako Plangintza Partekatuan (2017-2027) ere, egitasmoari erreferentzia egin zitzaion; hain zuzen, «Tolosa, pertsona ardatz duen herria» izeneko lehendabiziko ildo estrategikoan. Zehazki:

«1.3.3. Partaidetza-prozesuak erraztea eta estrukturak eta mekanismoak sortzea, Tolosan emakumeentzako etxe/gune bat antolatzearen egokitasuna eztabaida-tzeko eta gogoeta egiteko.»

Hala, 2016an, ordezkari politikoak eta emakumeen taldeko ordezkariak Basauriko eta Donostiako etxeetara joan ziren, gune horietan izandako esperientziak aztertzeko eta proiektu honen abiapuntu izateko.

Urte horretan bertan, era berean, Emakumeen Etxearen lantalde politiko-teknikoa sortu zen. Talde horretan bildu ziren Tolosako Udalean ordezkaritza duten alderdi politikoetako ordezkariak eta emakumeen taldeetako ordezkariak. 2018an, Berastegiko eta Asteasuko alkateak talde honetan integratzen dira. Zazpi bilera egin ziren. Talde honen helburua zen, besteak beste, emakumeekin elkarlanean proiektuaren inguruko zehaztapenak adostea. Horren haritik, hainbat gai tratatu ziren: etxea sortzeko arrazoiak, definizioa, lan-ildoak, eskaini beharreko zerbitzuak, antolamendua, kudeaketa eta abar.

2017ko udaberrian, zenbait feminista eta emakume-talde elkartu eta Tolosaldeko Emakumeen Etxearen eskaerari indarra eta forma ematea erabaki zuten. Horren inguruan hitz egiteko bilera ireki bat antolatu zen eta izugarrizko arrakasta izan zuen. Eskualde osorako izango zen Emakumeen Etxe bat behar zela ondorioztatu zen, Tolosan kokatua, eta parte-hartze prozesu bat beharrezkoa zela emakumeek nolako etxea nahi zuten erabakitzeko. Eskaera horrekin 300 sinadura inguru bildu ziren.

Gainera, 2017ko martxoaren 8ko greba feministaren testuinguruan, Tolosaldeko Asanblada Feminista sortu zen. Bere erronka nagusia Emakumeen Etxea sortzea da, eta, horri begira, eskualdeko emakumeen eta eragileen arteko sareak eraikitzea.

Capítulo VII. Disposiciones transitorias.

Artículo 17. Disposiciones finales.

ANTECEDENTES

La Casa de las Mujeres es un recurso demandado desde hace tiempo por el Movimiento Feminista y las mujeres de Tolosa, de hecho, esta reivindicación de un espacio propio para las mujeres que promueva la participación socio-política de las mujeres de Tolosa y Tolosaldea, se recoge en el marco del II Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Tolosa. Se realizó durante el proceso de evaluación realizado en 2011. Entre los ámbitos considerados prioritarios para el desarrollo de acciones de promoción de la igualdad de mujeres y hombres en Tolosa para los próximos años, se mencionó la necesidad de crear una Casa para las Mujeres.

Como refuerzo a la Escuela de Empoderamiento, y a demanda de los propios grupos de mujeres se vio la necesidad de articular un foro común para todas ellas, en orden a compartir experiencias y organizar actividades de manera conjunta y coordinada. Igualmente, demandaron la creación de una Casa de las Mujeres para Tolosa, con la finalidad de contar con un espacio propio para desarrollar todas las actividades dirigidas al empoderamiento de las mujeres del municipio.

Siguiendo esta línea, en 2015, en el Diagnóstico y III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres Tolosa (2015-2020), en el Eje 2 (Empoderamiento y Participación), entre las medidas específicas 2.1.1.4. y 2.1.1.5., se recoge de nuevo la necesidad de crear un espacio para las mujeres a nivel comarcal:

«2.1.1.4. Desarrollar un espacio físico propio para las mujeres, ubicado en Tolosa y abierto tanto a mujeres asociadas como no asociadas de la Comarca.

2.1.1.5. Definir un modelo de gestión del futuro espacio de las mujeres mediante un proceso participativo, con el objetivo de lograr el mayor grado de implicación posible de los colectivos y mujeres individuales participantes en dicho espacio.»

2016an, en el Plan Compartido de Tolosa 2017-2027, en la planificación de Tolosatzen, lo que hasta el momento era una reivindicación, se convierte en una medida específica 1.3.3. de la Línea Estratégica Tolosa, un municipio centrado en la persona:

«1.3.3. Facilitar procesos de participación y crear estructuras y mecanismos, para debatir y reflexionar sobre la idoneidad de disponer de una casa/centro para mujeres en Tolosa.»

Así, en 2016, representantes políticas y de agrupaciones de mujeres visitaron las casas de Basauri y Donostia, para conocer de cerca las experiencias de estos servicios y fijar un punto de partida para este proyecto.

En ese momento, se crea el Grupo de Trabajo político-técnico. El grupo está compuesto por representantes del gobierno municipal, concejales y concejalas de la oposición y representantes de las mujeres. En el año 2018, se integraron en este grupo los/las alcaldesas de Berastegi y Asteasu. Se realizaron siete reuniones. El objetivo de este grupo era, entre otros, establecer y acordar unos mínimos en colaboración para comenzar a definir el proyecto. Así, se abordaron diversos temas: razones para crear la casa, su definición, las líneas de trabajo, los servicios a prestar, la organización, la gestión, etc.

En la primavera de 2017, varias agrupaciones feministas y grupos de mujeres, se unieron y decidieron darle fuerza y forma a la demanda de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea. Se celebró una reunión abierta para su debate y obtuvo un gran éxito. Se llegó a la conclusión de que se necesitaba una Casa de las Mujeres para toda la comarca de Tolosaldea, ubicada en Tolosa, y para ello, era necesario poner en marcha un proceso participativo, para decidir qué tipo de casa querían las mujeres. Se recogieron unas 300 firmas con esta solicitud.

Asimismo, en el contexto de la huelga feminista del 8 de marzo de 2017, se creó la Asamblea Feminista de Tolosaldea. Su principal desafío era crear una Casa de las Mujeres y, para ello, tejer redes entre las mujeres y el ámbito asociativo de la comarca.

EK\CV GAO-I-2023-07450

Halaber, Tolosako Udaleko Berdintasun Sailaren 2018ko aurrekontuan, 20.500 €-ko diru kopurua aurreikusi zen enpresa bat kontratatzeko, proiektu honen inguruan, prozesu parte-hartzaile baten bidez, hausnarketa bat egin zedin herritarrekin, bereziki emakume-taldeekin, eta horren inguruan zenbait jarduera aurrera eraman zitezen.

Ildo horri jarraituz, 2019-2023 Legealdirako Kudeaketa Planean, 4.1 kapituluan (Tolosako Emakumeen ahalduntzea sustatzea), honako hau dago jasota:

Azken urteotan parekidetasun eta berdintasunaren alde emandako pausuei jarraikiz Tolosaldeko Emakumeen Etxea eraikiko da, tokiko zein eskualdeko emakumeen ahalduntzerako.

Espazio berria erreferentziazko gunea izango da emakume guztientzat: elkar-ezagutzeko, elkarlanean ekimen berriak garatzeko eta antolatzeko, emakumeen topaketarako eta eztabaida eta hausnarketarako gunea izango da.

Beraz, 2018ko maiatzean, hasiera eman zitzaion parte-hartze prozesuari eta bi lan-talde gehiago sortu ziren: Talde Eragilea (Tolosaldeko Asanblada Feministako ordezkariek, emakumeen taldekoek, emakume norbanakoek eta Tolosako Berdintasun teknikariak osatutakoa) eta Emakumeen Gune Zabala (interesa duten eskualdeko emakume guztiak).

Lehen partaidetza-prozesu hori bi fasetan garatu zen: lehen fasean, 2018ko maiatzean eta ekainean, etxearen printzipioak, xedea, kalitatea, erabilera eta jarduerak definitu ziren. Eta, irailetik abendura bitarteko bigarren fasean, etxearen kudeaketa, antolaketa, baliabide eta abarren eredua definitu zen. Prozesuan, eskualdeko 104 emakumek parte hartu zuten, adin, herri eta talde desberdinetakoak: Tolosaldeko Asanblada Feminista, Ana Yurd, Bilgune Feminista, Kokuyó, Batukada (Batumore), Zutani eta sindikatuak (ELA eta LAB).

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen egitasmoa definitzeko prozesuan hainbat alderdi landu eta zehaztu dira: Etxeak zer beharrei erantzun beharko dien; Etxearen erabiltzaileak nortzuk izango diren; zer ezaugarri eta printzipio gidari izango dituen; Etxearen funtzionamendu eta kudeaketa eredua; zer nolako jarduerak garatuko dituen; zer nolako zerbitzuak emango dituen eta abar.

Halaber, prozesu horretan, eztabaida askoren ondoren, Etxearen kokapena erabaki zen eta haren aurreproiektua ere aurkeztu zen.

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen helburu orokorra hau izango da: Emakumeen topaketa, eztabaida, ikaskuntza eta ahalduntzerako gune seguru eta kolektibo bat izatea, agenda feminista politikaren erdiko ardatzean kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuta, desberdintasunak eta izan litezkeen intersekzio kontuan harturik, oraingo agenda inplikatutako eragileekin zabaldurik, eta beharrezko tresnak eta metodologiak berriturik.

Beste helburu bat prozesu estrategiko eta eraldatzaileagoak lortzeko bidean laguntzea eta aurrera egitea da, Tolosaldeko bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko.

Talde Eragileak egindako proposamena Tolosaldeko udaletako ordezkariei aurkeztu zitzaien 2019ko otsailaren 18an egindako bileran. Bertan erabaki zen udalerri bakoitzak mozio bat aurkeztu behar zuela osoko bilkurarako, eta adierazi zen Etxearen proiektua udalerri bakoitzean babestu, gizarteratu eta ikusgai egongo zela, eta, gainera, udalerri horietako bakoitzak aurrekontu-partida bat jarriko zuela Etxeko jarduerak eta zerbitzuak gauzatzera bideratutako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak emateko.

Gainera, ordezkari politikoekin egindako bilera horretara, Emakumeen Etxea modu partekatuan finantzatzeko proposamen bat helarazi zuten mozioa babesten zuten Tolosaldeko udalek.

Además, en el presupuesto para el 2018 del Departamento de Igualdad, se destinó un importe de 20.500 € para la contratación de una empresa para llevar a cabo un proceso participativo con las mujeres, para reflexionar sobre este espacio y realizar diversas actividades en torno al mismo.

Siguiendo en esta línea, en el Plan de Gestión para la Legislatura 2019-2023, en el capítulo 4.1. Fomentar el empoderamiento de las mujeres de Tolosa, se recoge:

Se construirá la Casa de las Mujeres de Tolosaldea para el empoderamiento de las mujeres a nivel local y comarcal con el objetivo de seguir dando pasos a favor de la igualdad y la paridad.

Dicho espacio será un lugar de referencia para todas las mujeres, para conocerse entre sí, para desarrollar y organizar actividades de forma conjunta. Un lugar para el encuentro, el debate y la reflexión trabajo.

Por lo tanto, en mayo de 2018 se inició el proceso participativo y se crearon dos grupos de trabajo más: Grupo Motor (formado por representantes de la Asamblea Feminista de Tolosaldea, grupo de mujeres, mujeres individuales y de las técnicas de Igualdad de Tolosa) y Emakumeen Gune Zabala (todas las mujeres de la comarca interesadas de la comarca).

Este primer proceso participativo se desarrolló en dos fases: en la primera fase, en mayo y junio de 2018, se definieron los principios, la finalidad, la calidad, el uso y las actividades de la casa. Y, en la segunda fase de septiembre a diciembre, se definió el modelo de gestión, organización, recursos, etc de la casa. Durante el proceso participaron un total de 104 mujeres de la comarca, de diferentes edades, localidades, grupos y agentes sociales: Tolosaldeko Asanblada Feminista, Ana Yurd, Bilgune Feminista, Kokuyó, Batukada Feminista (Batumore), Zutani y los sindicatos (ELA y LAB).

En el proceso de definición del proyecto de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea se han trabajado y definido diferentes aspectos: necesidades a las que deberá dar respuesta la Casa; personas usuarias de la Casa; características y principios rectores; modelo de funcionamiento y gestión de la Casa; actividades a desarrollar; servicios a prestar, etc.

Asimismo, en este proceso, tras muchas discusiones, se decidió la ubicación de la Casa y se presentó también su anteproyecto.

El objetivo general de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea será el de ser un espacio seguro y colectivo de encuentro, debate, aprendizaje y empoderamiento de las mujeres, que permita situar la agenda feminista en el eje central de la política, incorporando los objetivos políticos del feminismo, teniendo en cuenta las desigualdades y sus posibles intersecciones, ampliando la agenda actual con los agentes implicados y renovando las herramientas y metodologías necesarias.

También es otro objetivo el ayudar y el avanzar hacia procesos más estratégicos y transformadores para lograr la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida de la comarca de Tolosaldea.

La propuesta realizada por el Grupo Motor fue presentada a las y los representantes de los ayuntamientos de Tolosaldea, en una reunión celebrada el 18 de febrero de 2019, donde se decidió que cada municipio debía presentar una moción al pleno, indicando que el proyecto de la Casa sería apoyado, socializado y visible en cada municipio y, además, cada uno de estos municipios dotaría una partida presupuestaria para proporcionar los recursos humanos y económicos, con el fin de llevar a cabo las actividades y los servicios de la Casa.

Además, a esa reunión con los y las representantes políticas, se trasladó una propuesta para financiar la Casa de las Mujeres de manera compartida entre los ayuntamientos de Tolosaldea que apoyaban la moción.

EK\CV GAO-I-2023-07450

Jarraian, Lantalde politiko-teknikoak proposamen hura eta haren bideragarritasuna eta martxan jartzeko aukerak aztertu zituen; besteak beste, kudeaketa, funtzionamendua, emakumeek adostutakoa, eta Tolosaldeko udalek jarriko zituzten edo jar zitzaketen baliabideak; eta, azkenean, proposamen berri bat landu zuten.

2019ko urritik aurrera, lehenengo lan gisa, Lantalde politikoteknikoan aurkeztu eta kontrastatu zituzten egindako roposamenak, eta parte-hartze prozesuan parte hartuko zuten emakumeekin ere kontrastatu ziren, denen artean adostasuna lortzeko saiakera egiteko.

Horrela, 2021eko martxoan abian jarri zen II. Prozesu partehartzailea, 2018 eta 2019 urteen artean gauzatutako lehen prozesuari jarraipena emateko. 2022ko apirilean amaitu zen, eta parte hartzeko prozesuaren bigarren fase horrek hamahiru hilabeteko iraupena izan zuen. Guztira 76 emakumek hartu dute parte eta Tolosaldeko 28 udaletatik 24k bat egin dute proiektuarekin (Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza eta Albiztur kanpo geratu ziren). Etxearen izena Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izango da, Tolosako Inpernu kaleko 5 eta 7ko lokaletan eta Emakumeon plazako 1.eko lokalean jarriko da. Tolosako Udala da horien titularra.

Bigarren partaidetza-prozesuan, besteak beste, honako hauek landu eta zehaztu dira:

Araudi bat, non Etxearen erabiltzaileak definitu, eta horien eskubideak eta betebeharrak zehazten baitira; kudeaketa eta funtzionamendu eredu bat; 24 udalen artean finantzaketa partekatua izateko proposamena; Etxean eskainiko diren jarduerak eta zerbitzuak; 24 udalen eta Etxearen erabiltzaile diren emakumeen arteko elkarrizketarako Emakumeen Elkartea sortzea; eta, azkenik, bozketa baten bidez, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea izena adostu da.

## I. KAPITULUA

## DEFINIZIOA, XEDEA ETA ERAKUNDEEN TIPOLOGIA

*1. artikulua. Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.*

Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxearen (aurrerantzean, «Andragora») titulartasuna Tolosako Udalaren esku dago, kudeaketa partekatua du eta osaera parekidea du, proiektuan parte hartzen duten udalen ordezkaritza politiko baten, Etxeko Elkartearen, MFren eta Tolosaldeko emakume taldeen artean.

Ekipamendu horretan, emakumeei zuzendutako zerbitzuak eskainiko dira, eta Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak antolatutako hainbat jarduera garatuko dira; hala nola Etxeko Elkarteak, kolektibo feministek, emakume-taldeek eta banakako emakumeek antolatutako jarduerak, hala nahi badute.

*2. artikulua. Helburu orokorra.*

Andragorak emakumeak elkartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko eta ahalduntzeko gune segurua eta kolektiboa izango da, agenda feminista politikaren ardatz nagusian kokatu ahal izateko, feminismoaren helburu politikoak txertatuz, desberdintasunak eta izan ditzakeen intersekzioak kontuan hartuz, inplikatutako eragileekin gaur egungo agenda zabalduz eta beharrezko tresnak eta metodologiak berrituz.

Beste helburu bat prozesu estrategiko eta eraldatzaileagoak lortzeko bidean laguntzea eta aurrera egitea da, Tolosaldeko bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko.

*3. artikulua. Erakundeen tipologia.*

Andragoraren lokalak (Berdintasun Sailari eta dinamizatzaileari esleitutakoak izan ezik), horietan emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna ikuspegi feministatik lortzera bideratutako jarduerak egin nahi dituen edozein elkarte, kolektibo, erakunde edo pertsonak erabili ahal izango ditu, ikuspegi feministatik eta Andragoraren printzipio gidariak betez.

El Grupo político-técnico analizó aquella propuesta y su viabilidad y posibilidades de puesta en marcha, entre otras cuestiones, su gestión, funcionamiento, consensuado por las mujeres, y los recursos que los ayuntamientos de Tolosaldea aportarían o pudieran poner, y finalmente elaboró una nueva propuesta.

A partir de octubre de 2019, como primer trabajo, se presentaron y se contrastaron las propuestas realizadas en el Grupo político-técnico y con las mujeres que iban a participar en el proceso participativo para intentar llegar a un consenso entre todas ellas.

Así, en marzo de 2021, se puso en marcha el II. Proceso participativo, para dar continuidad al primer proceso llevado a cabo entre los años 2018 y 2019. Finalizado en abril de 2022, esta segunda fase del proceso participativo ha tenido una duración de trece meses. En total han participado 76 mujeres y 24 de los 28 ayuntamientos de Tolosaldea se han sumado al proyecto (quedan excluidos Hernialde, Abaltzisketa, Belauntza y Albiztur). El nombre de la casa será Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, que se instalará en los locales de la calle Inpernu kalea, 5, 7 y Emakumeon plaza 1 de Tolosa, siendo titular de los mismos el Ayuntamiento de Tolosa.

A lo largo del segundo proceso participativo se han trabajado y concretado, entre otros:

Un reglamento, donde se definen a las usuarias de la Casa y se determinan los derechos y obligaciones de las mismas; un modelo de gestión y funcionamiento; la propuesta para una financiación compartida entre los 24 ayuntamientos; las actividades y los servicios que se ofrecerán en la Casa; la creación de la Asociación de Mujeres para la interlocución entre los 24 ayuntamientos y las mujeres usuarias de la Casa, y por último, a través de una votación se acuerda el nombre, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea.

## CAPÍTULO I

## DEFINICIÓN, OBJETIVOS Y TIPOLOGÍA DE ENTIDADES

*Artículo 1. Tolosaldeko Emakumeen Etxea.*

Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea (en adelante, «Andragora») es un equipamiento cuya titularidad depende del Ayuntamiento de Tolosa, de gestión compartida y de composición paritaria, entre una representación política de los ayuntamientos implicados en el proyecto de la Casa, y una representación de la Asociación de la Casa, del MF y los grupos de mujeres de Tolosaldea.

En este equipamiento se ofrecerán servicios dirigidos a las mujeres y se desarrollarán diversas actividades organizadas por el Área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa, así como, las actividades organizadas por la Asociación de la Casa, colectivos feministas, grupos de mujeres y mujeres individuales que así lo quieran.

*Artículo 2. Objetivo general.*

Andragora será un espacio seguro y colectivo de encuentro, debate, aprendizaje y empoderamiento de las mujeres, que permita situar la agenda feminista en el eje central de la política, incorporando los objetivos políticos del feminismo, teniendo en cuenta las desigualdades y sus posibles intersecciones, ampliando la agenda actual con los agentes implicados y renovando las herramientas y metodologías necesarias.

También es otro objetivo ayudar y avanzar hacia procesos más estratégicos y transformadores para lograr la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida de la comarca de Tolosaldea.

*Artículo 3. Tipología de entidades.*

Podrá hacer uso de los locales de Andragora (excepto de los asignados al Área de Igualdad y al de el Servicio de Dinamización, cualquier asociación, colectivo, entidad o persona que quiera realizar en los mismos, las actividades tendentes a lograr la igualdad real de mujeres y hombres desde una perspectiva feminista y que cumpla con los principios rectores de Andragora.

EK\CV GAO-I-2023-07450

Higiezinak eta ekipamenduak erabili ahal izateko, ezinbestekoa izango da elkarte interesduna legez eratuta egotea, edota ordezkari identifikatua duen nortasun juridikorik gabeko kolektiboa izatea. Elkarteen kasuan, Euskadiko Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon behar du. Nortasun juridikorik gabeko kolektiboen kasuan, 2/2016 Legeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 69.4.f) eta 71.4 artikuluetan xedaturiko baldintzak bete behar dituzte. Halaber, elkarte eta kolektibo guztiek irabaziasmorik ez izatearen baldintza bete behar dute.

II. KAPITULUA

PRINTZIPIOAK ETA JARDUERA-ILDOAK

*4. artikulua. Printzipio gidariak.*

Andragora inklusiboa, irekia eta plurala izango da. Andragorak leku segurua izan behar du, emakume guztientzako errespetuan eta konfiantzan oinarritua. Feminismoaren eta berdintasunaren alde lan egiten duten emakume eta kolektibo guztientzat erreferente izango da Tolosaldean. Feminista izango da, kontzientzia feminista sortuko du eta feminismoa eskualde osora zabalduko du. Horizontala, parte-hartzailea eta biltzarkidea izango da. Lotsagabea, probokatzailea eta iraultzailea izango da. Belaunaldi artekoa, hezitzailea, sortzailea, dinamikoa, bizia eta aktiboa izango da. Ekologikoki jasangarria, irisgarria, sarbide errazekoa eta erosoa izango da. Ekipamendu publiko-komunitarioa izango da, laikoa eta euskalduna.

*5. artikulua. Jarduketa ildoak.*

5.1. Emakumeen asoziazionismoa eta partaidetza soziopolitikoa sustatzea eguneroko bizitzaren arlo guztietan.

Emakume guztien partaidetza-modu desberdinak bultzatzea eraldaketa sozio-politikoa lortzeko, eta ikuspegi feminista eta eraldatzaileitik eragitea, gizartearen esparru guztietan (Behatoki kritikoa).

Emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzea, bai maila indibidualean, bai kolektiboan. Horretarako, espazio propio batean lan egingo da, eta posible izango da genero-mendekotasuna haustea eta emakumeen askatasuna erraztea.

Harremanak estutzea MFarekin eta Tolosaldeko emakumetaldeekin, eta kolektibo horiek indartzeko behar diren baliabideak ipintzea, batetik, prozesuei lagunduz, eta bestetik, haien posizionamenduak eta erakundeen jarduerari buruzko eztabaidak errespetatuz.

MF eta emakume-taldeak indartzea, gaur egungo testuinguruan zabaltzen ari diren ideia atzerakoiei eta feminismoaren aurkako ideiei aurre egiteko, berdintasun handiagoko agertokietarantz joateko geure eskubideen erabileran.

Asoziazionismoa eta emakumeen sareak sustatzea, elkarrekin lan egiteko eta sinergiak elkartzeko, adin, jatorri, klase, aniztasun funtzional, ideologia, sexu-joera eta identifikazio, erlijio, eta abarren inguruan, indarrak bateratuz eta eskualdeko Mugimendu Feminista indartuz.

Emakume-taldeek partaidetza-tokietan duten agerikotasuna eta presentzia handitzea, politikan eragiteko gaitasuna indartuz; eta emakumeen sareekiko zein mugimendu sozialekiko sinergiak erraztea eta esperientziak trukatzea.

5.2. Begirada feminista txertatzea eskualdeko erakundeek sustatutako politika, programa eta proiektuen diseinuan, garapenean eta ebaluazioan.

Ezartzen ari diren politika publikoen estrategiak eta esku-hartze mailak berrikustea, eta agenda feminista politika instituzionalean nola txertatu aztertzea, prozesu estrategikoagoak babesteko bidean aurrera egiteko, eta, horrela, agenda politikoa garatzea eta kokatzea ahalbidetuko duten aldaketa handiak sartzea, eta, gainera, MF bera, haren egiturak, sareak eta itunak indartzea.

La utilización de los inmuebles y equipamientos estará supeditada a la constitución legal de la asociación interesada o a la existencia de un colectivo sin personalidad jurídica con representación idfentificada. En el caso de las asociaciones, debe estar inscrita en el Registro de Asociaciones de Euskadi. En el caso de colectivos sin personalidad jurídica, deberán cumplir los requisitos establecidos en los artículos 69.4.f) y 71.4 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi. Asimismo, todas las asociaciones y colectivos deben cumplir el requisito de carecer de ánimo de lucro.

CAPÍTULO II

PRINCIPIOS Y LÍNEAS DE ACTUACIÓN

*Artículo 4. Principios rectores.*

Andragora será inclusiva, abierta y plural. Andragora debe ser un lugar seguro, basado en el respeto y la confianza para todas las mujeres. Será un referente en Tolosaldea para todas las mujeres y colectivos que trabajan por el feminismo y la igualdad. Será feminista, generará conciencia feminista y extenderá el feminismo a toda la comarca. Será horizontal, participativa y congresual. Será descarada, provocadora y revolucionaria. Será intergeneracional, educativa, creativa, dinámica, intensa y activa. Será ecológicamente sostenible, accesible, de fácil acceso y cómoda. Será un equipamiento público-comunitario, laico y euskaldun.

*Artículo 5. Líneas de actuación.*

5.1. Fomentar el asociacionismo y la participación sociopolítica de las mujeres en todos los ámbitos de la vida cotidiana.

Impulsar las diversas formas de participación de todas las mujeres para la transformación socio-política e incidir en todos los ámbitos de la sociedad desde una perspectiva feminista y transformadora (Observatorio crítico).

Fortalecer la autonomía y el empoderamiento de las mujeres a nivel individual y colectivo, mediante el trabajo en un espacio propio donde sea posible romper con la subordinación de género y facilitar la libertad de las mujeres.

Estrechar las relaciones entre el MF y grupos de Mujeres de Tolosaldea y poner los recursos necesarios para fortalecer a estos colectivos apoyando los procesos y respetando sus posicionamientos y debates en relación con la actuación institucional.

Fortalecer al MF y los grupos de mujeres para hacer frente a las ideas retrógradas y anti-feministas que se están expandiendo en el contexto socio-político actual, para avanzar a escenarios de mayor igualdad en el ejercicio de nuestros derechos.

Fomentar el asociacionismo y las redes de mujeres, para juntas, trabajar y tejer sinergias entre mujeres diversas, en relación con la edad, origen, clase, diversidad funcional, ideología, orientación e identificación sexual, religión, etc, uniendo fuerzas y fortaleciendo el Movimiento Feminista de la comarca.

Potenciar la visibilidad y presencia de los grupos de mujeres en los espacios participativos, promoviendo la capacidad de incidencia política, facilitar las sinergias con redes de mujeres y movimientos sociales e intercambiar experiencias.

5.2. Incorporar la mirada feminista en el diseño, desarrollo y evaluación de las políticas, programas y proyectos promovidos por las instituciones de la comarca.

Revisar las estrategias y los niveles de intervención de las políticas públicas que se están implementando y analizar cómo integrar la agenda feminista en la política institucional para avanzar en la defensa de procesos más estratégicos, introduciendo así grandes cambios que permitan desarrollar y ubicar la agenda política, además de reforzar a el propio MF, sus estructuras, redes y pactos.

EK\CV GAO-I-2023-07450

Desberdintasuna eta gero eta prekarizatuagoak dauden emakumeen bizitza ikusaraztea, eta desberdintasunaren diagnostikoa kuantifikatu ahal izatea (txostenak, azterlanak, prestakuntzak, etab.).

Egiturazko, administrazioko eta kudeaketako beharrezko baldintzak finkatzea, politika publikoen diseinuan eta garapenean perspektiba feminista gehitzeko aukera emango dutenak, azken xedea izanik Tolosaldeko emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzea.

Erakunde arteko (Tolosaldeko udalen, Foru Aldundiaren eta erkidegoko erakundeen artekoa) koordinazioa eta partaidetzazko demokrazia erraztuko dituen lan-eredu batean aurrera egitea, berdintasun-politikak, praktika egokien transferentzia eta kudeaketa publikoaren hobekuntza garatzeko gako gisa.

5.3. Emakumeen bizi-baldintzak ez ezik, gizartean duten kokapena ere hobetzen laguntzea.

Emakumeen bizi-baldintzak hobetzeko ez ezik, emakumeei ondasun eta baliabide ekonomiko, politiko, sozial eta kulturaletarako sarbidea errazteko bidean egiten diren jarduera eta programen garapena sustatzea eta koordinatzea.

Fokua lan-munduan jartzea. Sexismoak egituratutako lan-munduaren ezaugarrien berri udalerrian ematea (emakumeek kontratu okerragoak dauzkate; gizonak baino emakume gutxiago dago ardura-postuetan, % 25 gutxiago irabazten dute, lan-baldintza ezegonkorragoak, etab.). Herritarrei etxeko eta zaintzako lanak eta merkatukoak banatzeko beharra ikusaraztea eta sentsibilizatzea. Emakumeen pobreziaren eta marjinazioaren irakurketa politikoa planteatzea.

Emakumeek tradizioz egindako lanen balioa nabarmentzea. Soldata duten eta ez duten zaintzaileen laneko baldintzak agerian jartzea (prekarietatea, kontraturik eza, bakardadea, soldata txikiak, ordutegiak…) eta «normaltasun» egoera haustea. Baita ere, pertsonen zaintza udal politikaren erdian jartzea, zaintza-lan duina sustatzeko baldintzak sortzea, dela familia-giroan, dela maila profesionalean, fokua zaintzaileen eta zaindutako pertsonen eskubideetan jarriz.

Emakumeak gizarteratzeko eta laneratzeko orientabideak ematea eta horien jarraipena egitea. Ekintzak garatzea, emakumeak arautan lan-merkatuan txertatzen laguntzeko, laguntza emanez hobetze-prozesuei, emakumeen gaitasun profesionalak hobetzeko prozesuei lagunduz, haien protagonismoa errespetatuta eta eraldaketa soziala sustatuz eta, halaber, emakumeen egoera profesionala eta pertsonala hobetzen eta autonomia ekonomikoa hobetzen lagunduta.

Diskriminazio-egoerak ekar ditzaketen beste faktore batzuk dituzten emakumeen edo emakume-taldeen diskriminazio anizkoitza prebenitzea (egoera administratibo irregularrean dauden emakumeak, bakarrik edo abandonatuta dauden adineko emakumeak, indarkeria matxistari edo sexu-esplotazioari aurre egiten ari diren emakumeak, langabezian edo lanpostu prekarioetan dauden gazte kualifikatuak, ama bakarreko familiak, xenofobia, lesbofobia, transfobia eta abarri aurre egiten dioten emakumeak), eta ikuspegi feminista eraldatzailea eta integrala txertatzea jarduera guztietan.

5.4. Emakumeen aurkako indarkeria matxista eta eraso sexualak deuseztatzen laguntzea.

Herritarrak oro har, eta emakumeak, bereziki, informatu, prestatu, sentsibilizatu eta kontzientziatuko dituen gunea izatea, genero-estereotipoak eta indarkeria matxistaren inguruan dagoen estigmatizazioa hausteko. Indarkeriaren begirada zabaltzea. Hausnarketa kolektiboko eta eztabaidatzeko prozesuak sustatzea indarkeria matxista eta eraso sexualen inguruan. Arazo honekin lotutako mitoak deseraikitzea eta mikromatxismo eta bortxaketaren-kulturaren arteko hari eroalea identifikatzea.

Eremu horretan, indarkeria detektatzen laguntzea, arlo horretan trebatutako profesionalen bidez, eta, gainera, emakumeak horretan trebatzea eta inplikatzea, sinergiak sortuko dituen kon-

Visibilizar la desigualdad y las vidas cada vez más precarizadas de las mujeres. Cuantificar el diagnóstico de la desigualdad (informes, estudios, formaciones, etc.).

Fijar las condiciones estructurales, administrativas y de gestión necesarias que permitan incorporar una perspectiva feminista en el diseño y desarrollo de las políticas públicas, con el fin último de lograr la igualdad real de mujeres y hombres en la comarca.

Avanzar en un modelo de trabajo que facilite la coordinación interinstitucional (entre los ayuntamientos de Tolosaldea, la Diputación Foral y las instituciones de la comunidad) y la democracia participativa como clave para desarrollar políticas de igualdad, transferencia de buenas prácticas y mejora de la gestión pública.

5.3. Contribuir no sólo a mejorar las condiciones de vida de las mujeres sino su posición en la sociedad.

Promover y coordinar el desarrollo de actividades y programas que trabajen no sólo en la mejora de las condiciones de vida de las mujeres sino en la facilitación del acceso de las mismas a los bienes y recursos económicos, políticos, sociales y culturales.

Poner el foco en el mundo laboral. Dar a conocer en el municipio las características del mundo laboral estructurado por el sexismo (las mujeres cuentan con contratos peores, menos mujeres que hombres en puestos de responsabilidad, ganan un 25 % menos, condiciones laborales más inestables, etc.). Visibilizar y sensibillizar a la ciudadanía de la necesidad del reparto de los trabajos domésticos y de cuidado y los del mercado. Plantear la lectura política de la pobreza y marginación de las mujeres.

Poner en valor los trabajos realizados tradicionalmente por las mujeres. Visibilizar las condiciones laborales de las cuidadoras remuneradas y no remuneradas (precariedad, sin contrato, soledad, sueldos escasos, horarios…) y romper con la situación de «normalidad». Asímismo, poner el cuidado de las personas en el centro de la política municipal, crear las condiciones para la promoción de una actividad cuidadora digna, sea en el entorno familiar, sea a nivel profesional, haciendo hincapié en los derechos de las cuidadoras y de las personas cuidadas.

Orientar y hacer un seguimiento para la inserción sociolaboral de las mujeres. Desarrollar acciones dirigidas a favorecer la incorporación de las mujeres al mercado laboral regulado, dando apoyo a los procesos de mejora para trabajar en el desarrollo de competencias profesionales para las mujeres, respetando su protagonismo y favoreciendo la transformación social, así como la mejora de su situación profesional y personal y la consecución de mejoras en su autonomía económica.

Prevenir la discriminación múltiple de aquellas mujeres o grupos de mujeres, en quienes concurran otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación (mujeres en situación administrativa irregular, mujeres mayores abandonadas, mujeres que enfrentan la violencia machista, explotación sexual, jóvenes cualificadas en paro o empleos precarios, familias monomarentales, mujeres que enfrentan la xenofobia, lesbofobia, transfobia, etc) e introducir un enfoque feminista transformador e integral en todas las actuaciones.

5.4. Contribuir a eliminar la violencia machista y las agresiones sexuales a las mujeres.

Ser un espacio informe, forme, sensibilice y conciencie a la ciudadanía en general y las mujeres en particular, para romper con los estereotipos de género y la estigmatización que existe alrededor de la violencia machista. Ampliar la mirada de la violencia. Facilitar procesos de reflexión colectiva y debate sobre la violencia machista y las agresiones sexuales. Desmontar los mitos relacionados con esta problemática e identificar el hilo conductor entre los micromachismos y la cultura de la violación.

Favorecer en este espacio la detección, de la violencia a través de profesionales capacitadas en esta materia y además, formando e implicando a las mujeres a ello, buscando una compli-

EK\CV GAO-I-2023-07450

plizitate kolektiboa bilatuz, indarkeriari aurre egiten dioten emakumeekiko ikuspegi enpatiko eta solidariotik (udal-langileak, prestatzaileak eta erabiltzaileak).

Prebentzioa sustatzea, halako moldez non normalizatutako eta ikusezin bihurtutako indarkeria agerian utzi ahal izango baita, laguntza sozial eta instituzionaleko kultura bat sortuz eta hezkidetza eta genero-estereotipoak gainditzea sustatuz.

Harrera, bideratzea eta arreta integrala sustatzea ikuspegi feminista eta intersekzional batetik, prozesuetan lagunduz eta indarkeriak eragiten dien emakumeen erabakiak errespetatuz eta, halaber, ahalduntze-eta autodefentsa-prozesuak sustatuz, duintasuna eta autonomia berreskuratzeko eta horien leheneratze osoa bermaturik.

Salaketa publikoa bultzatzen duen toki bat izatea, ikusarazteko, kontzientziatzeko eta indarkeria matxistari eta eraso sexualei erantzun irmo bat emateko. Sustatzea emakumeek ordaina jasotzeko duten eskubidea, zeinak berekin baitarama bizi izandako indarkeria, salaketa eta beren hitza behar bezala entzuna izatearen eskubidea, urratutako eskubideak berrezarri eta jasandako indarkeriaren inpaktuak sozialki onar daitezen.

5.5. Berdintasunaren inguruko ikuspegi berrien sorkuntza, ikerketa eta antolaketa sustatzea.

Sustatzea eta zabaltzea, batetik, diziplina anitzeko jakintzak, eta bestetik, emakumeek eta Mugimendu Feministak historian zehar egindako ekarpenak, bai eta sistema heteropatriarkalaren berrikuspen eta kritika batetik egin litezkeen ekarpenak ere.

Andragoraren erabiltzaile diren emakumeentzat, ikaskuntza feminista kolektibo eta kritikoko espazio eta prozesuak sustatzea, zeinak aukera emango baitiete begirada beste errealitate batzuetara zabaltzeko eta beste feminismo batzuk ezagutzeko, ikuspegi hegemoniko eta etnozentrikotik (lesbianen feminismoak, mugakoak, beltzak, antikolonialak, ekofeminismoak, etab.) urruti daudenak, eta horrela emakume guztiei prozesu eta espazio kolektibo baten parte sentitzen laguntzeko.

Prestakuntza ikastaroak eta tailerrak sustatzea, baita hiritar guztiei eta, batik bat, emakumeei zuzendutako sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak ere, rol eta estereotipo tradizionalak hausten lagundu eta gizon-emakumeon gizarte berdinzaleago bat lortzera bideratuak.

Sustapena eta laguntza ematea ikerketa-lanei, tesinei eta/edo doktorego-tesiei, baldin eta aukera ematen badigute emakumeen egoera erreala ezagutzeko eta ikusarazteko, eta eskaintzen badituzte alderdi teoriko eta praktikoak, gero haien gainean eztabaidatu ahal izateko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekin zerikusia duten ekintza eta programa etorkizunekoak diseinatu ahal izateko.

Pixkanaka, modu selektiboan eta emakumeek adostuta, izaera mistoko jarduerak eta topaketak baloratuko dira, balio eta kalte androzentrikoak desegiteko eta berdintasunezko jokabide berriak eraikitzeko eta identifikatzeko estrategia posible gisa.

Talde mistoekiko eta maskulinitate berriekiko aliantzak bultzatzea, gogoeta feministako prozesua hasi badute.

*6. artikulua. Ordutegia.*

Andragorako lokal komunetako jarduera, oro har, goizeko 10etatik gaueko 9ak arte izango da, astelehenetik ostiralera. Dinamizazio Zerbitzua goizez eta arratsaldez emango da, eta ordutegia enpresa edo pertsona esleipendunarekin adostuko da.

*7. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilera.*

Bai lantaldeen bileretan, bai koordinazio-bileretan, bai Andragoraren Batzarretan, bai horietan erabiltzen diren edo horietatik

cidad colectiva que produzca sinergias, desde una mirada empática y solidaria hacia las mujeres que enfrenta violencia (personal municipal, formadoras y usuarias).

Fomentar la prevención, de manera que permita visibilizar la violencia normalizada e invisibilizada, creando una cultura de apoyo social e institucional y promoviendo la coeducación y la superación de los estereotipos de género.

Facilitar la acogida, la derivación y la atención integral, desde una perspectiva feminista y enfoque interseccional, apoyando los procesos y respetando las decisiones de las mujeres afectadas por la violencia y promoviendo procesos de empoderamiento y autodefensa de las mujeres, con el fin de reparar la dignidad, la autonomía y garantizar la plena recuperación de las mismas.

Ser un espacio que impulse la denuncia pública, como instrumento para visibilizar, concienciar y dar una respuesta contundente a la violencia machista y a las agresiones sexuales. Facilitar el derecho a la reparación de las mujeres, que implica el derecho a que el relato de la violencia vivida, la denuncia y la palabra de las mujeres, sean legítimamente escuchadas, para poder reponer los derechos vulnerados y el reconocimiento social de los impactos de la violencia sufrida.

5.5. Favorecer la formación, información, investigación y la articulación de nuevos enfoques en torno a la igualdad.

Promocionar y divulgar los conocimientos de carácter multidisciplinar y la aportación de las mujeres y el Movimiento Feminista a lo largo de la historia, así como las posibles apor-taciones desde una revisión y critica al sistema heteropatriarcal.

Promover espacios y procesos de aprendizaje colectivo feminista crítico para las mujeres usuarias de la casa, que posibilite ampliar la mirada a otras realidades y conocer otros feminismos, alejados de una visión hegemónica y etnocéntrica (feminismos lesbianos, de la frontera, negras, anticoloniales, ecofeminismos, etc) y de esta manera favorecer que todas las mujeres puedan sentirse parte de un proceso y espacio colectivo.

Impulsar y promover cursos y talleres de formación, así como campañas de sensibilización e información, dirigidas a la ciudadanía en general y a las mujeres en particular, que favorezcan la ruptura de roles y estereotipos tradicionales y promuevan nuevos valores encaminados a alcanzar una sociedad más igualitaria de mujeres y hombres.

Promover y ofrecer apoyo a trabajos de investigación, tesinas y/o tesis doctorales, que nos permitan conocer y visibilizar la situación real de las mujeres, y que aporten aspectos teóricos y prácticos para posteriormente poder debatir y diseñar futuras acciones y programas en relación con la igualdad de mujeres y hombres.

De manera paulatina, selectiva y consensuada por las mujeres, se valorará las actividades y encuentros de carácter mixto, como posible estrategia para la desconstrucción de valores y perjuicios androcéntricos y la construcción e identificación de nuevos comportamientos más igualitarios.

Favorecer alianzas con aquello grupos mixtos y de nuevas masculinidades que hayan iniciado un proceso de reflexión feminista.

*Artículo 6. Horario.*

La actividad en los locales comunes de Andragora se desarrollará, con carácter general, desde las 10 de la mañana hasta las 9 de la noche de lunes a viernes. El Servicio de Dinamización se prestará a la mañana y a la tarde, y el horario será a convenir con la empresa o persona adjudicataria.

*Artículo 7. Uso de las lenguas oficiales.*

Tanto en las reuniones de los grupos de trabajo como en las reuniones de coordinación, como en las Asambleas de Andragora,

EK\CV GAO-I-2023-07450

eratortzen diren agirietan, EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira: euskara eta gaztelania, euskararen erabilera bultzatuz eta areagotuz.

Aintzat hartuta indarrean dagoen legedia, eta, bereziki, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, eta 179/2019 dekretua, (Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa):

Udalaren erabilera-planean jasotako hizkuntza irizpideak beteko dira, bai zerbitzu-hizkuntzari dagozkionak eta baita lan-hizkuntzari dagozkionak ere.

Etxeko Elkarteak, Mugimendu Feministak, Tolosaldeko emakume taldeek edo banakako emakumeek antolatzen eta garatzen dituzten jardueretan, Udalak laguntza eta elkarlana eskainiko du, udalaren hizkuntza-politika konpartitu, hizkuntza-ikuspegia landu, eta euskararen erabilera ahalik eta handiena izateko.

Tolosaldeko Emakumeen Etxearen funtzionamenduaren baitan sortuko diren lantaldeen bileretan, bai koordinazio-bileretan, bai Etxeko Batzarretan, euskara erabiliko da ahozkoan, eta baita horietan erabiltzen diren edo horietatik eratortzen diren agirietan ere, kideen hizkuntzagaitasunak ahalbidetzen duenean.

Euskara eta gaztelania erabili behar badira, euskarari lehentasuna emango zaio, eta lehentasun hori nola eman aztertuko da kasuan kasu, euskararen presentzia eta erabilera ahalik eta handiena izan dadin.

Talde Eragilearen eta koordinazio-gunearen osaeran, ordezkariak aukeratzeko irizpide gisa, kontuan hartuko da lantaldea osatzen duten ordezkariek, gutxienez, euskara ulertzea.

Horrez gain, Etxearen jarduna antolatzean eta garatzean aintzat hartuko dira honako printzipio gidari hauek:

Euskara eta gaztelania biak dira hizkuntza ofizialak, baina biak ez daude egoera sozial eta juridiko berdinean. Euskara hizkuntza gutxitu eta gutxiagotua da, eta administrazioari dagokio indar orekatzailea izatea.

Hizkuntza-komunitate guztiek dituzte euren funtzionamendurako berezko arauak Arau nagusi bat da, hizkuntza guztiek behar dituztela euren garapenerako, hizkuntza hori nagusi izango den funtzio eta espazio batzuk izatea. Euskarak ezinbestekoa du nagusi izango den espazio eta funtzio batzuk izatea; izan ere, hizkuntza hegemonikoak eta gutxituak espazio bera konpartitzen dutenean, hizkuntza gutxitua menpeko hizkuntza izan ohi da, eta ez dugu baldintzarik sortzen hizkuntza gutxitu horren garapenerako.

Subsidiaritate printzipioa: euskaraz egitea euskaraz egin daitekeena.

Etxearen jardunean hausnarketa eta eraldaketa prozesu bat abiatuko da, hizkuntza-politikan generoaren ikuspegia egoki txertatzeko, eta, era berean, zehazteko genero berdintasunerako prozesuak euskararen normalizazio prozesuari, eta bi hizkuntza ofizialen benetako berdintasuna lortzeari begira, zer ekarpen egin ahal dion.

III. KAPITULUA

ESPAZIOEN DESKRIBAPENA ETA ERABILERA

*8. artikulua. Lokal nagusiaren deskribapena eta erabilera (Emakumeon plaza, 1).*

Lokal nagusiak Emakumeon plazatik du sarbidea, eta plaza hori gune garrantzitsua da, herriaren erdigunean eta tren geltokitik gertu baitago.

y en la documentación que en ellas se utilice o de ellas se derive se utilizarán las dos lenguas oficiales de la EAE: euskara y castellano, favoreciendo e incrementando el uso del euskera.

Teniendo en cuenta la legislación vigente y, en particular, la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, y el decreto 179/2019, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las entidades locales de Euskadi:

Se cumplirán los criterios lingüísticos recogidos en el plan municipal de normalización del uso del euskera, tanto los relativos a la lengua de servicio, como a la lengua de trabajo.

En las actividades organizadas y desarrolladas por la Asociación de la Casa, el Movimiento Feminista, los grupos de mujeres de Tolosaldea o por mujeres individuales, el Ayuntamiento prestará su apoyo y colaboración para compartir la política lingüística municipal, trabajar la perspectiva lingüística y lograr el mayor uso posible del euskera.

En las reuniones de los grupos de trabajo que se creen en el marco del funcionamiento de Andragora, tanto en las reuniones de coordinación como en las asambleas de la Casa, se utilizará el euskera en el ámbito oral, así como en los documentos utilizados en las mismas o que de ellos se deriven, cuando la competencia lingüística de sus miembros lo permita.

En el caso de que haya que utilizar el euskera y el castellano, se dará prioridad al euskera y se estudiará cómo otorgar esta prioridad en cada caso, para que la presencia y uso del euskera sea la mayor posible.

En la composición del Grupo Operativo y del Espacio de Coordinación se tendrá en cuenta, como criterio para la elección de las representantes, al menos la comprensión del euskera por parte de las representantes.

Además, en la organización y desarrollo de la actuación de Andragora se tendrán en cuenta los siguientes principios rectores:

El euskera y el castellano son lenguas oficiales, pero no se encuentran en la misma situación social y jurídica. El euskera es una lengua minorizada y, corresponde a la administración actuar como fuerza equilibradora.

Todas las comunidades lingüísticas tienen normas propias para su funcionamiento. Una regla principal es que todas las lenguas necesitan para su desarrollo, que tengan unas funciones y unos espacios en los que predomine esa lengua. El euskera necesita tener unos espacios y unas funciones que sean predominantes, porque cuando las lenguas hegemónicas y minoritarias comparten un mismo espacio, la lengua minorizada suele ser una lengua sometida, y no creamos condiciones para el desarrollo de esa lengua minoritaria.

Principio de subsidiariedad: hacer en euskera lo que se pueda hacer en euskera.

En la actuación de Andragora se va a iniciar un proceso de reflexión y transformación para integrar adecuadamente la perspectiva de género en la política lingüística, así como para definir las aportaciones que el proceso de igualdad de género puede realizar al proceso de normalización del euskera y a la consecución de la igualdad real de las dos lenguas oficiales.

CAPÍTULO III

DESCRIPCIÓN Y USO DE LOS ESPACIOS

*Artículo 8. Descripción y uso del local principal (Emakumeon plaza, 1).*

El local principal tiene su acceso desde Emakumeon Plaza, esta plaza constituye un núcleo importante ya que está situado en el centro del pueblo y su proximidad a la estación de tren.

* Emakumeen topaleku izango den egongela.

Helburu horrekin, egongela-liburutegia Andragorako zentro-areto eta espazio neuralgiko gisa ulertzen dugu. Areto hau egunero irekita egongo da Tolosaldeko emakumeek erabili ahal izan dezaten.

Emakumeen elkarteek eskatuta, eraikinaren barruan dauden emakumeen identitatea babestuko da, eta, beraz, biniloekin edo argia pasatzen utzi bai baina barrualdearen ikuspegia iragazten duten beste elementu batzuekin tratatuko dira.

Era berean, banaketa bisual bat ezarriko da, aretoaren pribatutasuna mantentzeko sarrera nagusiko erakusmahaitik.

Sarrerako atea ate bikoitz lerragarri automatiko eta irisgarri bat izatea planteatzen dugu.

Altzariak neurrira eginak izango dira, eta altzari modularrak erabiliko dira espazioa hainbat modutan konfiguratu ahal izateko, gunearen beharren arabera: banakako irakurketa, bilera informalak, eztabaidak, solasaldi txikiak eta abar. Behar denean, pilatu egin daitezke espazioa libre uzteko. Altzari horiek material naturalez (zura eta kotoia) eta, ahal den neurrian, bertako emakumeek egin behar dituzte.

Era berean, apalategi-gune zabalago bat ere badago, alboko leiho garaien azpialdean, liburutegi gisa erabiltzeko.

Gainera, kafe-makina bat jartzea planteatzen dugu, Berdintasun Sailean proposatutako officetik aparte erabiltzeko.

Lokal nagusiko gainerako espazioen banaketa, berriz, areto nagusiaren antolamenduak (erabilera anitzeko aretoa), komunek eta alboko lokaletara konektatzeko korridoreak baldintzatzen dute.

* Harrera.

Harrera-mahaia sarreraren ezkerraldean dago, Berdintasun Sailarekin konektatuta. Modu horretan, agerikoagoa eta irisgarriagoa da; izan ere, kanpotik sartuta, zuzeneko konexio bisualean eta lerro zuzenean dago kokatuta, eta norabide horretan hurbiltzen da. Jendeari arreta emateko mahaia gurpil-aulkien erabiltzaileentzako irisgarria izango da.

Harrera-mahai horretan, Andragorako Dinamizazio Zerbitzuak arreta eskainiko die lokal horretara joaten diren emakumeei. Ondoan, berehalako arreta eskaintzeko gune bat dago, eta beste bat luzeagoa, esertzeko lekua duena eta erabiltzailearen konfidentzialtasuna bermatzen duena.

* Tolosako Udaleko Berdintasun Saila.

Hasiera batean, Berdintasun Saila Lokal Nagusian instalatuko da, Andragoraren dinamikak bere erritmoa hartu eta zerbitzua finkatu arte. Hori lortzen denean, Berdintasun Saila atzeko lokalean dagoen lehenengo solairura lekualdatuko da (Inpernu kalea 5 eta 7).

* Zerbitzu gela 1.

1. zerbitzu-gela Berdintasun Sailaren ondoan dago. Bulego bat jarri da emakumeak berehala eta pribatutasunez artatu ahal izateko; horregatik, harrera-mahaiaren ondoan jarri da.

* Areto Nagusia.

Ekitaldi-aretoa erabilera anitzeko aretoa izango da. Altzari metagarriekin, hainbat konfigurazio egokitu ahal izango dira. Gutxi gorabehera, 60 emakumerentzako lekua kalkulatzen da, gurpil-aulkietarako 2 espazio barne.

* Bilera gela.

Bilera-gela bat jarri da, hozkailu bat eta kafe-makina bat jarri ahal izateko lekuarekin.

* Salón de encuentro para las mujeres.

Con este fin, entendemos el espacio de estar-biblioteca como un salón de encuentro y espacio neurálgico de Andragora. Este salón estará abierto a diario para que las mujeres de Tolosaldea puedan utilizarlo.

Por petición de las diferentes asociaciones de mujeres, se preservará la identidad de las mujeres que se encuentren en el interior del edificio, por lo que los vidrios serán tratados con vinilos u otros elementos que dejen pasar la luz, pero tamicen la visión del interior.

Asimismo, se establecerá una división visual que mantenga la privacidad del salón respecto del mostrador de entrada principal.

La puerta de acceso se plantea con una puerta doble corredera automática y accesible.

El mobiliario se plantea realizado a medida para el lugar, con muebles modulares para poder configurar el espacio de diversas formas, según las necesidades del sitio: lectura individual, reuniones informales, debates, pequeñas charlas etc. Incluso en un momento dado, se podrían apilar para dejar el espacio libre. El planteamiento es que estos muebles sean confeccionados con materiales naturales como son madera y algodón y, en la medida de lo posible, por las mujeres del lugar.

Se dispone asimismo de un espacio de estanterías más amplio situado por debajo de las ventanas altas del lateral para su uso como biblioteca.

Se plantea, además, la colocación de una máquina de café, para su uso independiente del office propuesto en el Área de igualdad.

La distribución en cuanto al resto de los espacios del local principal está condicionada por la disposición del salón de actos (sala polivalente), los aseos y el pasillo de conexión hacia los locales laterales.

* Recepción.

El mostrador de recepción se sitúa a la izquierda de la entrada, conectado con el Área de igualdad. Con esta disposición, se hace más visible y accesible, ya que se sitúa en conexión visual directa y en línea recta desde el acceso desde el exterior, cuya aproximación se realiza en esa dirección. El mostrador de atención al público será accesible para las usuarias en silla de ruedas.

En este mostrador el Servicio de Dinamización de Andragora prestará atención a las mujeres que acudan a este local, al lado se dispone de un espacio para ofrecer una atención inmediata y otra de mayor duración proporcionando espacio para sentarse y garantizando la confidencialidad de la usuaria.

* Área de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa.

En un comienzo, el Área de Igualdad se instalará en el Local principal hasta que la dinámica de Andragora adquiera su propio ritmo y se consolide el servicio. Una vez que esto ocurra, el Área de igualdad se trasladará a la planta primera situado en el local posterior (Inpernu kalea 5 y 7).

* Sala de servicio 1.

La sala de servicio 1 se dispone contiguo al Área de Igualdad. Se plantea un despacho para poder atender a las mujeres con inmediatez y privacidad, por eso se ha situado junto al mostrador de recepción.

* Salón de Actos.

El salón de actos se plantea como una sala polivalente. Con mobiliario apilable para poder adaptar diferentes configuraciones. Se calcula una capacidad para aproximadamente 60 mujeres, incluyendo 2 espacios para sillas de ruedas.

* Sala de reuniones.

Se plantea una sala de reuniones con zona para poder colocar una nevera y una cafetera.

EK\CV GAO-I-2023-07450

* Atzealdeko sarrera.

Atzealdetik beste sarbide bat irekitzea planteatu da, atzeko lokalekiko konexio zuzenagoa izateko. Sarbide horrek bi fatxaden arteko desnibela gainditu behar du, beraz, eskailera-zati bat eta plataforma jasotzaile bat sartuko dira, irisgarria izan dadin.

*9. artikulua. Atzeko lokalen deskribapena eta erabilera (Inpernu kalea, 5 eta 7).*

Atzeko lokalek 4 sarbide dituzte guztira, sarbide nagusiarekin, lehen solairuko bulegoetarako sarbidearekin eta 1. eta 2. geletarako zuzeneko 2 sarbideekin bat egiten dutenak.

Hala ere, sarbide nagusia lehenetsiko da, eta 1. gelarako sarbidea larrialdiko irteera bihurtu.

* Harrera.

Sarrera nagusian dago, eta harrera-mahai irisgarri baterako lekua eta lanpostu bat ditu.

* Gelak.

Andragoran egingo diren jarduerak garatzeko, tamaina eta ezaugarri desberdinak dituzten 5 ikasgela planteatu dira.

1. eta 2. gelek kaletik zuzeneko sarbideak dituzte, eta, beraz, gainerako espazioa aintzat hartu gabe kudeatu eta erabil daitezke. 2. gelan sukalde txiki bat planteatu da, eta ikuspegi funtzionaletik, ezinbesteko elementutzat jotzen da sukaldaritzako, gozogintzako eta abarreko tailerrak egin ahal izateko; baita elkarteen barne-erabilerarako ere (elkarte gastronomiko gisa).

* Bulegoa eta bilera gela.

Atzeko lokalaren goiko solairuan (lehen solairuan), bulego bat eta bilera-gela bat aurreikusi dira, eta bertara lekualdatuko da Berdintasun Saila.

Tolosaldeko Emakumeen Etxean iraupen luzeko zerbitzuak, programak eta jarduerak garatzen dituzten erakundeak izango dira Tolosako Udalaren aurrean Inpernu kaleko 5,7 eta Emakumeon plazako 1 espazioetan ematen den erabileraren erantzule. Lokalen erabileratik zein horietan garatzen diren jardueretatik zuzenean edo zeharka erator daitezkeen kalte, galera eta erantzukizun guztiak erakunde horien kontura izango dira, honako hauek izan ezik:

— Jabetze Eskolatik eratorritako jarduerei dagozkienak.

— Eta aurrerantzean Tolosako Udaleko Berdintasun Sailak eskaintzen dituen jarduera, programa eta zerbitzu gehiagori dagozkionak izan ezik eta espazioak mantentzeari dagozkionak, aurrerago zehaztuko direnak.

Halaber, erakunde horiek aseguru hauek hitzartu dituztenen agiriak (polizak eta ordainagiriak) aurkeztu beharko dituzte:

— Erantzukizun zibileko asegurua, Tokiko Erantzukizun Zibila barne (erantzukizun zibil lokatiboa).

— Lokalean dauden eta erabiltzailearen jabetzakoak diren ondasun higigarriak babesteko asegurua (aukerazkoa).

*10. artikulua. Unean uneko jarduerak. Jarduera jarraituak. Bilerak.*

10.1. Unean uneko jarduerak.

Andragorako lokalak erabiltzeko eskubidea izango dute (Berdintasun Sailari eta Dinamizazio Zerbitzuari esleitutakoak izan ezik) Erregelamendu honetako I. kapituluko 3. artikuluan aipatutako erakunde mota guztiek.

Jarduera puntualen kasuan (gehienez ere bi egun), eskaera-fitxa gutxienez 7 egun lehenago (justifikatutako salbuespenetan izan ezik) bidaliko da Andragorako Dinamizazio Zerbitzura. Zerbitzu horrek kudeatuko ditu Tolosako Udaleko Berdintasun tekni-

* Acceso posterior.

Se plantea la apertura de un nuevo acceso posterior que propiciará la conexión más directa con los locales traseros. Este acceso ha de salvar el desnivel existente entre las dos fachadas por lo que se incluirá un tramo de escaleras y una plataforma elevadora para hacerlo accesible.

*Artículo 9. Descripción y uso de los locales traseros (Inpernu kalea, 5 y 7).*

Los locales traseros presentan un total de 4 accesos diferentes, que se corresponden con el acceso principal, acceso a los despachos de la planta primera y 2 accesos directos a las aulas 1 y 2.

No obstante, se mantendrá el acceso principal como preferente. El acceso al aula 1 se convertirá en salida de emergencia.

* Recepción.

Se sitúa en la entrada principal, con espacio para un mostrador accesible y un puesto de trabajo.

* Aulas.

Se plantean 5 aulas con diferentes tamaños y características para el desarrollo de las actividades que se llevarán a cabo en Andragora.

Las aulas 1 y 2 tienen accesos directos desde la calle, por lo que podrán ser gestionadas y usadas con independencia del resto del espacio. En el aula 2 se plantea una pequeña cocina, desde el punto de vista funcional, se considera un elemento indispensable para poder realizar talleres de cocina, repostería, etc. incluso para el uso interno de las diferentes asociaciones (tipo sociedad gastronómica).

* Oficina y sala de reuniones.

En la planta superior (primera planta) del local trasero se prevé una oficina y una sala de reuniones, donde se trasladará el Área de Igualdad.

Las entidades que desarrollen servicios, programas y actividades de larga duración en la Casa de las Mujeres de Tolosaldea, serán responsables ante el Ayuntamiento de Tolosa, del uso que se da en los espacios 5,7 de la calle Inpernu y de Emakumeon plaza 1. Todos los daños, perjuicios y responsabilidades que puedan derivarse, directa o indirectamente, tanto del uso de los locales como de las actividades que en ellos se desarrollen correrán a cargo de estas entidades, salvo:

— Los relativos a las actividades derivadas de la Escuela de Empoderamiento.

— Las actividades, programas y servicios que ofrezca en adelante el Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Tolosa el mantenimiento de los espacios, que se concretarán más adelante.

Así mismo, estas entidades tendrán la obligación de presentar la documentación (pólizas y recibos) de quien haya concertado los siguientes seguros:

— Seguro de Responsabilidad Civil, que incluye Responsabilidad Civil Local (responsabilidad civil locativa).

— Seguro de protección de bienes muebles existentes en el local y propiedad del usuario (opcional).

*Artículo 10. Actividades puntuales. Actividades continuas. Reuniones.*

10.1. Actividades puntuales.

Tendrán derecho a utilizar los locales de Andragora (excepto de los asignados al Área de Igualdad y al Servicio de Dinamización), todos los tipos de entidades mencionados en el artículo 3 del capítulo I del presente Reglamento.

En el caso de actividades puntuales (de un máximo de dos días), se dirigirá la ficha de solicitud con un mínimo de 7 días de antelación (salvo excepciones justificadas) al Servicio de Dinamización de Andragora, el cual gestionará las solicitudes que serán

kariei baimentzeko aurkeztuko zaizkien eskabideak, eta horiek 48 ordu baino gutxiagoko epean eman edo ezetsiko dituzte.

Zerbitzu horrek berak jakinaraziko dio erabakia erakunde eskatzaileari, kontuan hartuta aretoen erabilgarritasuna eta II. kapituluko 4. eta 5. artikuluetan jasotako printzipioak eta jarduera-ildoak. Zalantzarik, gatazkarik edo gainjartzerik izanez gero, Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun-teknikariekin kontsultatuko du, eta elkarrekin hartuko dute baimena emateari buruzko erabakia.

Era berean, jasotako eskaera guztien berri emango die Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun- teknikariei eta Talde Eragileari, bai onartutakoen, bai baztertutakoen berri.

Eskaerak jasotzen diren hurrenkeran aztertuko dira.

10.2. Jarduera jarraituak.

Jarraipenen bat dakarten jardueren kasuan (bi saiotan baino gehiagotan banatuta), eskaera bat bidaliko zaio Andragorako Dinamizazio Zerbitzuari, gutxienez 15 egun lehenago (justifikatutako salbuespenetan izan ezik). Zerbitzu horrek kudeatuko ditu Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariei baimentzeko aurkeztuko zaizkien eskaerak, eta horiek 4 egun baino gutxiagoko epean eman edo ezetsiko dituzte.

Zerbitzu horrek berak jakinaraziko dio erabakia erakunde eskatzaileari, kontuan hartuta aretoen erabilgarritasuna eta II. kapituluko 4. eta 5. artikuluetan jasotako printzipioak eta jarduera-ildoak. Zalantzarik, gatazkarik edo gainjartzerik izanez gero, Dinamizazio Zerbitzuak, berdintasun-teknikariekin eta Talde Eragilearekin kontsultatuko du, eta elkarrekin hartuko dute baimena emateari buruzko erabakia.

Era berean, jasotako eskaera guztien berri emango die Dinamizazio Zerbitzuak berdintasun-teknikariei, bai onartu-takoen, bai baztertutakoen berri.

Ikasturte osoko jarduerak (irailetik ekainerakoak) baldin badira, iraileko lehen hamabostaldian aurkeztu beharko dira eskabideak.

Eskaerak jasotzen diren hurrenkeran aztertuko dira.

10.3. Bilerak.

Lan-bilerak egin ahal izango dira lokaletan (Berdintasun Sailari eta Dinamizazio Zerbitzuari esleitutakoak izan ezik), betiere beste jarduera batzuen aldi berean ez badira.

Lokal horietan bilerak egiteko eskubidea izango dute erregelamendu honetako I. kapituluko 3. artikuluan aipatutako erakunde motek.

Lokal propiorik ez duten elkarteek izango dute lehentasuna.

Bileretarako gelak aplikazio informatiko baten bidez erreserbatuko dira.

10.4. Ohiko ordutegitik kanpoko jarduerak eta bilerak.

Andragorako ohiko ordutegitik kanpo jarduerak edo bilerak egiteko asmoa dagoenean, Dinamizazio Zerbitzuari eskaera bat bidaliko zaio, gutxienez jarduera edo bilera hasi baino 15 egun lehenago (justifikatutako salbuespenetan izan ezik). Dinamizazio Zerbitzuak kudeatuko ditu eskaerak, eta Tolosako Udaleko berdintasun-teknikariei bidaliko dizkie, baimena eman dezaten.

Baimena eman ondoren, Dinamizazio Zerbitzuari, dagokio jardueraren arduradunari giltza bat ematea. Giltza hori jarduera amaitu eta 3 eguneko epean itzuli beharko da.

10.5. Zerbitzuak emateko lokalak erabiltzea.

Tolosaldea Garatzen erakundeak kontratatutako zerbitzuak (psikologikoa eta juridikoa) emateko lokalak izendatuko dira.

Hala eskatzen duten erakundeek ere –irabazi-asmorik gabea izan beharko du– lokalak izan ditzakete elkartekideei edo, oro har, emakumeei informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak emateko, honako arlo hauekin lotuta:

elevadas para su autorización a las técnicas de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa y éstas concederán o desestimarán la autorización en un plazo inferior a 48 horas.

Este mismo servicio comunicará a la entidad solicitante la decisión, teniendo en cuenta la disponibilidad de las salas, así como los principios y líneas de actuación recogidos en los artículos 4 y 5 del capítulo II. En caso de duda, conflicto o solapamiento, el Servicio de Dinamización consultará con las técnicas de igualdad, y de manera conjunta decidirán sobre la autorización.

A su vez, el Servicio de Dinamización informará a las técnicas de igualdad y al Grupo Motor sobre todas las solicitudes recibidas, tanto las admitidas como las rechazadas.

Las solicitudes se atenderán por orden de recepción.

10.2. Actividades continuas.

En el caso de actividades que suponen alguna continuidad (repartidas en más de dos sesiones), se dirigirá una solicitud con un mínimo de 15 días de antelación (salvo excepciones justificadas) al Servicio de Dinamización de Andragora, el cual gestionará las solicitudes que serán elevadas para su autorización a las técnicas de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa y éstas concederán o desestimaránen un plazo inferior a 4días.

Este mismo servicio comunicará a la entidad solicitante la decisión, teniendo en cuenta la disponibilidad de las salas, así como los principios y líneas de actuación recogidos en los artículos 4 y 5 del capítulo II. En caso de duda, conflicto o solapamiento, el Servicio de Dinamización consultará con las técnicas de igualdad y el Grupo Motor, y de manera conjunta decidirán sobre la autorización.

A su vez, el Servicio de Dinamización informará a las técnicas de igualdad sobre todas las solicitudes recibidas, tanto las admitidas como las rechazadas.

En el caso de actividades que tengan duración de todo el curso (entre septiembre y junio), la ficha de solicitud tendrá que presentarse los primeros 15 días de septiembre.

Las solicitudes se atenderán por orden de recepción.

10.3. Reuniones.

Podrán realizarse reuniones de trabajo en los locales (excepto de los asignados al Área de Igualdad y al Servicio de Dinamización) siempre que no coincidan con otras actividades.

Tendrán derecho a realizar reuniones en estos locales los tipos de entidades mencionados en el artículo 3 del capítulo I del presente Reglamento.

Tendrán preferencia las asociaciones que no dispongan de local propio.

La reserva de las salas para las reuniones se realizará mediante una aplicación informática dispuesta al efecto.

10.4. Actividades y reuniones fuera del horario habitual.

Cuando se proyecten actividades o reuniones fuera del horario habitual de Andragora, se dirigirá una solicitud al Servicio de Dinamización con un mínimo de 15 días de antelación (salvo excepciones justificadas) al inicio de la actividad o reunión. El Servicio de Dinamización gestionará las solicitudes que serán elevadas para su autorización a las técnicas de igualdad del Ayuntamiento de Tolosa para emitir la autorización pertinente.

Una vez concedida la autorización, corresponderá también al Servicio de Dinamización facilitar a la persona responsable de la actividad una llave, que habrá de ser devuelta en un plazo de 3 días al término de la actividad.

10.5. Uso de locales para la prestación de servicios.

Se designarán locales para la prestación de los servicios contratados por Tolosaldea Garatzen (psicológico y jurídico).

También las entidades que lo soliciten, que deberá de ser sin ánimo de lucro, podrán disponer de los locales para prestar servicios de información y asesoramiento a sus asociadas o a las mujeres en general relacionados con los siguientes ámbitos:

EK\CV GAO-I-2023-07450

— Aholkularitza juridikoa banantze eta genero-indarkeria kasuetan.

— Gizarte- eta lan-arloko informazioa eta orientazioa.

— Sexu-informazioko zerbitzua.

— Emakume migratzaileentzako zerbitzua.

— Gizarte-bazterkeriari arreta emateko zerbitzua.

— Gune Zabalean adosten diren beste zerbitzu batzuk.

Erakunde edo elkarte interesdunek baimena eskatuko dute lokalak erabiltzeko. Baimen hori zerbitzuaren ezaugarriak, betebeharrak eta epea kontuan hartuta emango da.

Andragoran egiten diren zerbitzuak eta jarduerak honako alderdi hauek kontuan hartuta egingo dira:

— Baliabide hori definitzeko partaidetza-prozesuetan jasotako helburuak, printzipioak eta jarduera-ildoak bete behar dituzte Mugimendu Feministarekin, Tolosaldeko emakume-taldeekin eta banakako emakumeekin.

— Ezin izango dira lehendik dauden beste zerbitzu eta programa publiko edo pribatu batzuk bikoiztu, horretarako arrazoi justifikaturik ez badago.

— Ikuspegi ez-asistentzial eta feministatik emango dira, eta emakumeen ahalduntzea izango da zerbitzuaren edo jardueraren ardatz nagusia:

— Une oro errespetatuko dira zerbitzuetara jotzen dutenen erabakiak.

— Eskubide diren prestazioak ez dira mesede gisa aurkeztuko.

— Zerbitzu horietara jotzen duten emakumeak ez dira, nolabait, tutoretzapean hartuko.

— Emakumeen eskaerekin bat etorriko dira zerbitzuak, eta haien behar praktikoei zein interes estrategikoei erantzuten saiatuko dira.

— Doan emango dira.

Zerbitzuak ematen dituzten pertsonak edo haiengana jotzen dutenak izango dira zerbitzu-ematearen erantzule, jarduera pribatutzat hartzen delako, irabazi-asmorik gabekoa, eta interes publikoko arrazoiengatik, sustatu egin nahi dena, garatzeko espazioak eskainiz.

*11. artikulua. Biltegiratzeko espazioaren erabilera.*

Elkarteek aldez aurretik eskatuta, baimena emango da, ezaugarriak, betebeharrak eta epea zehaztuta.

Lokal propiorik ez duten elkarteek izango dute lehentasuna.

IV. KAPITULUA

JARDUERAK ETA ZEBITZUAK

*12. artikulua. Garatuko diren jarduerak eta zerbitzuak.*

2023aren hasieran, Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea, irekitzeak eta martxan jartzeak hainbat jarduera ekarriko ditu, espazioa ikusarazteko eta ateak irekitzeko, eta ekipamendua ezagutarazteko.

Horretarako, ahalegin handia egin behar da, informazioa emateko, batez ere Tolosaldeko emakumeek jakin dezaten etxe bat dagoela, segurua dela denentzat, esperientziak trukatzeko eta hausnarketetarako. Horregatik, hasiera batean, etxea ikusgarri egiteko aukera emango duten jardueren kudeaketari emango zaio lehentasuna, Tolosaldeko emakumeen artean ezagutarazteko, eta sustapen lanak egingo dira Andragoran parte har dezaten eta eskualdeko emakumeak Tolosaldeko Emakumeen Etxeko Elkartera atxiki daitezen.

— Asesoramiento jurídico en caso de separación y violencia de género.

— Información y orientación sociolaboral.

— Servicio de información sexual.

— Servicio para mujeres migrantes.

— Servicio de atención a la exclusión social.

— Otros servicios que se acuerden en el Gune Zabala.

Las entidades o asociaciones interesadas solicitarán autorización para el uso de los locales que será otorgado teniendo en cuenta las características del servicio, las obligaciones y plazo.

La prestación de los servicios y las actividades que se desarrollen en Andragora, se harán teniendo en cuenta los siguientes aspectos:

— Deben de cumplir con los objetivos, principios y líneas de actuación recogidos en los procesos de participación para la definición de este recurso, con el Movimiento Feminista, los grupos de mujeres y las mujeres individuales de Tolosaldea.

— No podrán duplicar otros servicios y programas existentes, de carácter público o privado, a no ser que haya razones justificadas para ello.

— Se prestarán desde una perspectiva no asistencial y feminista, siendo el empoderamiento de las mujeres el eje central del servicio o actividad y por ello:

— Se respetará en todo momento las decisiones de las personas que acudan a los servicios.

— Sin presentar como favores prestaciones que son un derecho.

— Sin tutelar de alguna forma a las mujeres que recurran a ellos.

— Serán acordes con las demandas de las mujeres, y tratarán de dar respuesta tanto a sus necesidades prácticas como intereses estratégicos.

— Se prestarán de manera gratuita.

La prestación de los servicios se realizará bajo la responsabilidad de las personas que lo prestan o que acudan a ellos, por considerar que es una actividad privada, de carácter no lucrativo a la que por circunstancias de interés público se pretende favorecer, facilitando espacios para su desarrollo.

*Artículo 11. Uso del espacio de almacenamiento.*

Previa solicitud por parte de las asociaciones, se concederá autorización en la que se determinarán las características, obligaciones y plazo.

Tendrán preferencia las asociaciones que no dispongan de local propio.

CAPÍTULO IV

ACTIVIDADES Y SERVICIOS

*Artículo 12. Actividades y servicios a desarrollar.*

La apertura y la puesta en marcha de Andragora, Tolosaldeko Emakumeen Etxea a comienzo del 2023, va a generar en sí el desarrollo de una serie de actividades para visibilizar y abrir las puertas y dar a conocer el equipamiento.

Esto requiere de un gran esfuerzo, de carácter informativo, en especial para que las mujeres de Tolosaldea se enteren de que existe una Casa, segura, de encuentro, intercambio y reflexión para todas ellas. Por ello, en un comienzo se dará prioridad a la gestión de actividades que permitan hacerla visible, dándola a conocer entre las mujeres de Tolosaldea y fomentar su participación en Andragora, así como la adhesión de las mujeres de la comarca a la Asociación de la Casa de las Mujeres de Tolosaldea.

EK\CV GAO-I-2023-07450

Horretarako, Komunikazio Lantaldea arduratuko da aurretiaz diseinatutako eta adostutako materiala (diptikoa eta bideoak) zabaltzeaz eta ekipamendua ezagutarazteko beharrezko estrategiak abian jartzeaz, honako jarduera hauek garatuz:

— Komunikazio Plan bat diseinatzea EAEko bi hizkuntza ofizialetan, zeinu eta braille hizkuntzan, eta udalen web orrien, sare sozialen, irratiaren, prentsaren eta abarren bidez zabaltzea.

— Bisita gidatuak egitea Andragorara.

— Tolosaldeko emakumeentzako jolas-ekitaldiak programatzea.

— Tolosaldeko herrietara bisita programatuak egitea.

Gainera, Andragoraren kudeaketa partekatua egingo duten taldeak eratu eta antolatuko dira (Lantaldeak, Talde Eragilea, Koordinazio-gunea eta Gune Zabala edo Asanblearioa).

Behin Andragora irekita, jarduerak bertan zein kanpoan eta Tolosan zein Tolosaldean antolatu ahal izango dira. Jardueraren arabera, haurtzaindegi-zerbitzua izatearen aukera aztertuko da. Jardueraren arabera, unean uneko premiei laguntzeko aukera aztertuko da, zaintza-kargak dituzten emakumeek jarduera horiek egin ahal izateko. Eta, gainera, bilera eta batzarretarako, aldi bereko itzulpena bermatuko da.

